

XX/2019 DEKRETUA, XXXXaren XX(e)koa; horren bitartez, Parke Naturala eta Kontserbazio Bereziko Eremua den Gorbeia Naturagune Babestuko Natura Baliabideen Antolamendurako bigarren Plana onesten da, Gorbeia Parke Naturalaren mugak aldatzen dira eta Itzinako mendiguneko Biotopo Babestua naturagune honetan txertatzen da.

Ekainaren 21eko 227/1994 Dekretuaren bitartez, Gorbeia aldeko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana onetsi zen, eta ekainaren 21eko 228/1994 Dekretuaren bitartez, Gorbeia aldea parke naturalizat jo zen, Arabako eta Bizkaiko Lurralde Historikoetan. Era berean, uztailaren 11ko 368/1995 Dekretuaren bitartez, Itzinako mendimultzoa babestutako biotopo deklaratu zen, Parke Natural honen barruan.

Bestalde, martxoaren 8ko 40/2016 Dekretuaren bitartez, Gorbeia kontserbazio bereziko eremu (ES2110009) izendatu zen, eta KBE horretan dauden habitat natural eta espezie moten eskakizun ekologikoen araberako kontserbazio-neurriak eta helburuak onetsi ziren.

40/2016 Dekretu horren Azken Xedapenetatik Lehenengoa betez, KBEaren mugaketa aldatu egin zen Atlantikoko eskualde biogeografikoko Batasunaren Garrantziko Lekuen Zerrenda onartzen duen Europako Batzordearen 2004/813/EE Erabakian aipatzen den mugaketari dagokionez; mugaketa-aldatze hori 2018ko maiatzaren 18ko Aginduaren (EHAA, 100. zk., maiatzaren 25ekoa) bidez gauzatu zen eta, horren bitartez, Batzordearen 2018/40 Erabakia jakinarazi zen, zeinaren bidez onartzen baita, hurrenez hurren, eskualde biogeografiko mediterraneoan eta atlantikoan Batasunaren garrantziko lekuen hamaikagarren zerrenda eguneratua. Horrenbestez, EAEk Gorbeia KBEaren mugaketaren aldaketari buruz proposatutako aldaketak onatzen dira.

Gorbeia lurreko-eremuak naturagune babestuen tipologia hirukoitza biltzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbazio Legearen testu bateginaren onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Natura Kontserbazio Legearen testu bateginaren (NKLTB) 18. artikuluari jarraikiz, naturagune babestuetako zenbait figura leku berean gainezarriko balira, horien arauak zein plangintza-mekanismoak dokumentu bakar batean koordinatu beharko dira, eremuaren kudeaketa-planean, kategoria bakoitzaren arabera aplikatu daitezkeen araubideek osotasun koherente bat osatzeko helburuarekin.

Horregatik, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko ekainaren 30eko Aginduaren bidez hasiera eman zitzaion Gorbeia Parke Naturaleko Natura-baliabideak Antolatze bigarren Plana landu eta prestatzeko prozedurari eta Parke Naturalaren mugak aldatzeko prozedurari, Kontserbazio Bereziko Eremura egokituta; eta Itzinako Biotopo Babestua indargabetu da, baina eremu horren babesa eta kontserbazioa bermatuta dago, natura-ondarearen eta ondare paisajistikoaren berezitasun hori Naturagune Babestuaren babes bereziko eremuan txertatu baita.

Gorbeia Natura 2000 Sarean sartzearen ondorioz, naturagune babestu horren kontserbaziorako irizpideak eta helburuak aldatu egin dira Parke Naturalaren figurari dagokionez; beraz, NKLTBaren 5.2 artikuluari jarraikiz, Gorbeia Natura Baliabideen Antolamendurako beste Plan bat egin behar da, lehen NBAPa onartu zenetik igaro den denbora ere aintzat hartuta.



NBAP berria egiteko, landa-lanaz gain, Parke Naturalaren lehenengo NBAParen edo KBEa izendatzeko Dekretuaren edukia kontuan izan da. Gainera, mota guztietako iturrietatik bildu ahal izan den informazio guztia ere baliatu da, organo kudeatzailearen urteko memoriak barnean hartuta.

Alabaina, dokumentua Europako Zuzentarauetara egokitu ostean, Natura 2000 Sarearen betekizunak bete behar dira, hau da, jarraipen-sistemak ezartzeko betekizuna eta Batasunaren interesekoak diren espezie eta habitaten kontserbazio-egoeraren ebaluazioak egiteko eta egoeraren berri aldizka emateko betekizuna; jarraipen eta ebaluazio horiek Batasun osorako ezarritako metodologia eta parametro zehatzen arabera egin behar dira, baina lehenengo NBAPan nekez aplikatu zitezkeen metodologia eta parametro horiek, ez baitu natura-baliabideen deskribapenari eta diagnostikoari buruzko atal berezirik egungo ebaluazio-irizpideak aplikatu ahal izateko.

Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremu eta Parke Natural den aldetik, NBAP berri honetan bi figura horien betekizunak txertatzen dira baina, horretaz gain, ez dugu ahaztu behar Gorbeia Euskal Autonomia Erkidegoko Naturagune babestuen sarean sartuta dagoela eta, NKLTBaren 11.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, sare horren helburuetako bat naturagune babestu horien kudeaketa-sistema orokorrak koordinatzea dela. Helburu hori betetzen laguntzeko, Gorbeia NBAP berriak babestutako bost naturaguneetarako diseinatutako egitura eta eduki komunak biltzen ditu; bost naturaguneetako NBAP berriak izapidetzen ari dira eta guztiak ere parke naturalak eta Natura 2000 Sarean sartutako eremuak dira.

NBAP berri horietan egitura eta eduki komunak ezartzeak, zonakatzea barne, ahalbidetzen du dokumentuen koherentzia hobetzea, bereziki eremuen zonakatzeari dagokionez (Naturagune Babestu osoan 30 zona mota izatetik 14 zona izatera igaro da); era berean, ahalbidetzen du antzekoak diren eta eremuen artean konpara daitezkeen erregulazioak eta administrazioak esku hartzeko araubidea ezartzea, baita plangintzaren eta kudeaketaren arteko oreka hobetzea ere.

Natura-ondarearen balioei dagokienez, NBAP honen memoriak martxoaren 8ko 40/2016 Dekretuaren II. Eranskineko 1. idatz-zatitik 5.era bitartekoak (Gorbeia KBEari dagozkion informazio ekologikoa, kontserbazio-helburuak, kontserbazio-arauak eta jarraipen-programa) osatzen, laburbiltzen eta eguneratzen ditu, eta NBAPetako zehaztapenei buruz NKLTBaren 4.2 artikuluan ezarritakoa betetzen du, baita Natura 2000 Sareko eremuei buruz NKLTBaren 22.4 artikuluan ezarritakoa ere.

NBAPak ez du ezartzen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa legez egin behar duten proiektuak etorkizunean baimentzeko esparrua; hortaz, ez da beharrezkoa ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren prozedura egitea, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian xedatutakoari jarraikiz.

Gorbeia Naturagune Babestuko Natura Baliabideen Antolamendurako bigarren Plana 27/2006 Legearen printzipioei jarraikiz izapidetu da; uztailaren 18ko 27/2006 Legeak ingurumen-gaietan informazioa eskuratu, publikoki parte hartu eta auzitegietara joateko eskubideak arautzen ditu.

Aurreko guztia kontuan izanik eta, alde batetik, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Herriko Natura Babesteko Legearen Testu Bateginean eta, bestetik, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legean ezarritakoa betez,

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuak proposatuta eta Gobernu Kontseiluak 201X(e)ko XXXXXaren XX(e[a])n egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua. Xedea eta helburua

1. – Dekretu honen xedea da Arabako eta Bizkaiko Lurralde Historikoetan Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE) eta Parke Naturala den Gorbeia Naturagune Babestuko Natura Baliabideen Antolamendurako bigarren Plana onestea, betiere 1/2014 Legegintzako Dekretuaren – Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina (NKLTB) onartzen duenaren– 18. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

2.– Natura Baliabideen Antolamendurako Plan honen xedea da Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) eta Parke Natural gisa babestutako Gorbeia Naturagune Babestuaren babes, kontserbazioa, hobekuntza eta zentzuzko erabilera bermatzeko beharrezkoak diren neurriak ezartzea.

2. artikulua.- Aplikazio-eremua

Gorbeia Naturagune Babestuan biltzen den eremu geografikoa Dekretu honen I. eranskinetik mugaketa-mapan grafiatuta dago, eta 20.226,4 ha-ko azalera hartzen du, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zeberio, Areatza, Artea, Zeanuri eta Orozko udalerrietan eta Arabako Lurralde Historikoko Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuia udalerrietan.

3. artikulua.- Gorbeia Parke Naturalaren mugak aldatzea

Gorbeia Parke Naturalaren mugak aldatu dira, 2. artikuluan xedatutako Naturagune Babestuaren eremuarekin bat etor daitezela.

4. artikulua.- NBAParen edukia

1. Dekretu honen I., II. eta III. eranskin gisa, kartografia, memoria eta arau-zatia argitaratu dira; horiek guztiak, alde batetik, Parke Naturalerako zehaztapenak dira eta, bestetik, KBEaren kontserbazio-neurriak eta helburuak, betiere NKLTBaren 22.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. Araudiaren I. eranskinetik eta III. eranskinetik Naturagune Babestuaren mugaketa-mapek, zonakatzek eta babes-eremu periferikoak arau-izaera daukate.

3. I. eranskinetik eta II. eranskinetik – Memoriako (Naturagune Babestuaren egungo egoeraren diagnostikoaren sintesia biltzen du) EUNIS habitat-mapak eta Batasunaren intereseko habitatak informazioa emateko baino ez dira. Eusko Jaurlaritzan ingurumenaren, natura-baliabideen antolamenduaren eta naturaren kontserbazioaren arloan eskuduna den Saileko webgunean eguneratuko da Gorbeia buruzko fitxa, Sail horrek informazio osatuagoa du eta.

5. artikulua.- Gorbeia Parke Naturalaren Kontserbazio Bereziko Eremuaren kudeaketarako neurriak eta jarraibideak

KBEa kudeatzeko neurriak eta jarraibideak –NBAParen kontserbazio-neurrien osagarri dira– naturagunearen Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planean txertatu dira, NKLTBaren 22.5 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

6. artikulua.- Naturagune Babestuaren babes-eremu periferikoa

Naturagune babestuaren balioak babesten laguntzeko eta kanpotik etor daitezkeen inpaktu ekologiko eta paisajistikoak saihestearren, babes-eremu periferiko bat ezarri da; eremu hori Dekretu honen I. eranskineko mapan grafiatuta dago.

7. artikulua.- Eragin sozioekonomikoko eremua.

Gorbeia Naturagune Babestuaren eta haren babes-eremu periferikoaren eragin sozioekonomikoko eremua honako udalerrri hauek osatzen dute: Zeberio, Areatza, Artea, Zeanuri eta Orozko, Bizkaiko Lurralde Historikoan, eta Legutio, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuia, Arabako Lurralde Historikoan.

8. artikulua.- Hedadura

1. NBAP honen zehaztapenak lurraldea, hirigintza eta natura-baliabideak antolatzeko eta, oro har, antolamendu fisikorako tresnei gailentzen zaizkie, eta beste edozein jarduketa, plan edo programa sektorialetan erabakigarriak izango dira; NBAParen edukiari aurka egin ahal izango diote edo eduki hori ez jasotzeko aukera izango dute betiere lehen mailako interes publikoko premiazko arrazoiak izanez gero eta, kasu horretan, erabakia arrazoitu egin behar izango da eta jendaurrean jakinarazi.

2. Lurraldea, hirigintza eta natura-baliabideak antolatzeko eta, oro har, antolamendu fisikorako tresnak NBAParekin kontraesanean baldin badaude, NBAPra egokitu beharko dira. Egokitzapen hori egiten ez den bitartean, NBAParen zehaztapenak aplikatuko dira, nolana ere, tresna horiei gailenduta.

9. artikulua.- Indarraldia

Gorbeia Naturagune Babestuko Natura Baliabideen Antolamendurako planaren indarraldia mugagabea izango da.

LEHEN XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Honako dekretu hau indargabetu da: 227/1994 Dekretua, ekainaren 21ekoa, Gorbeia aldeko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana onesten duena.

BIGARREN XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Gorbeia kontserbazio bereziko eremu (ES2110009) izendatzen duen martxoaren 8ko 40/2016 Dekretuaren honako atal hauek indargabetu dira: KBEa kontserbatzeko helburu eta neurriei buruzko dokumentuari dagozkion 1. artikuluko 4. idatz-zatia eta Azken Xedapenetatik Lehenengoa, II. eranskineko 6. idatz-zatia –Kontserbatzeko Xedeak eta Arauak– eta 7. idatz-zatia –Jarraipen Programa–.

HIRUGARREN XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Honako dekretu hau indargabetu da: 368/1995 Dekretua, uztailaren 11koa, Itxinako mendimultzoa babestutako biotopo deklaritzen duena.

AZKEN XEDAPENEN ARTEAN LEHENA

Gorbeia aldea parke naturalizat jotzen duen ekainaren 21eko 228/1994 Dekretuaren 3. artikulua aldatu da. Orain, honela idatzita geratuko da:

“3. artikulua. Lurralde-eremua

1. – Gorbeia Parke Naturalean sartzen den eremu geografikoa indarreko Natura Baliabideen Antolamendurako Planean grafiatuta dagoena da.
2. – Gorbeia Parke Naturalak 20.226,4 ha-ko azalera hartzen du, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zeberio, Areatza, Artea, Zeanuri eta Orozko udalerrietan eta Arabako Lurralde Historikoko Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuia udalerrietan”.

AZKEN XEDAPENEN ARTEAN BIGARRENA

Gorbeia aldea parke naturalizat jotzen duen ekainaren 21eko 228/1994 Dekretuaren 6. artikulua aldatu da. Orain, honela idatzita geratuko da:

“6. artikulua.- Parke Naturalaren Patronatua

- 1.- Gorbeia Parke Naturalaren Patronatua sortu da, parkearen kudeaketan aholkularitzarako eta laguntzeko organo gisa.
- 2.- Patronatuak Osoko Bilkuraren eta Batzorde Iraunkorraren bitartez jardungo du.
- 3.- Parkearen kudeaketaz arduratzen diren foru-organo guztien Akordioaren bitartez izendatuko da Patronatuaren burua, betiere 5. artikuluan aipatu diren koordinatzeko arau eta hitzarmenen esparruan.
- 4.- Patronatuko kide izango dira, presidentez gain, honako hauek:
 - a) Eusko Jaurlaritzan ingurumenaren, natura-baliabideen antolamenduaren eta naturaren kontserbazioaren arloko eskumenak esleituta dituen Saileko ordezkari bat; Sailburuak izendatuko du.
 - b) Bizkaiko Foru Aldundian Parke Naturalaren kudeaketaz arduratzen den organoaren ordezkari bat.
 - c) Arabako Foru Aldundian Parke Naturalaren kudeaketaz arduratzen den organoaren ordezkari bat.
 - d) Gorbeia Parke Naturalean sartzen diren udalerrien ordezkari bana.
 - e) Udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeen hiru ordezkari.
 - f) Euskal Herriko zientzia-elkarteen ordezkari bat, betiere natura-ingurunearen azterketaren, babesaren eta kontserbazioaren arloan ibilbide egiaztatua duten elkarteak izanik.
 - g) Parke naturalaren eremuan jarduten duten elkarte ekologista eta kontserbazionisten ordezkari bat.

- h) Inguruko onibarren jabeekideen erkidegoetako edo elkarteetako ordezkari bat.
- i) Euskal Herriko Nekazaritzako Erakunde Profesionalen ordezkari bat.
- j) Euskal Herriko Mendi Nekazaritzako Federazioaren ordezkari bat.
- k) Euskadiko Basogintza Elkarteen Konfederakundearen ordezkari bat.
- l) Euskal Mendizale Federazioaren ordezkari bat.
- ll) Euskal Herriko Unibertsitatearen ordezkari bat.
- m) Parkearen eragin-eremuan kokatutako Ehizako eta Arrantzako Klub eta Elkarteetako ordezkari bat.
- n) Parkeko zuzendaria.
- o) Presidenteak izendatutako idazkaria; hitz egiteko eskubidea izango du, baina ez botoa ematekoa.

b, c, d, e, j, k, l eta ll letretan aipatu diren Patronatuko kideak dagozkien organo edo erakundeek izendatuko dituzte.

f, g, h, i eta m letretan aipatu diren Patronatuko kideak Parkearen kudeaketaz arduratzen diren foru-organoko guztien Akordio bidez izendatuko dira, erakunde edo kolektibo horiek proposatuta, betiere 5. artikuluan aipatu diren koordinatzeko arau eta hitzarmenen esparruan.

Patronatuko kideak –parkearen kontserbazio-zuzendaria izan ezik– lau urterako izendatuko dira eta berriro ere hautatu ahal izango dira, baina kargua berritzen ez bazaie edo izendapena eragin duen baldintzetakoren bat betetzeari utziz gero, kargua utzi behar izango dute aldi horretan.

5.- Patronatuaren barruan eta haren mendeko, batzorde iraunkorra eratu ahal izango da; batzordeak Patronatuak eskuordetuta jardungo du eta, presidentez gain –Patronatuaren presidentea izango da–, honako hauek izango dira kide:

- Eusko Jaurlaritzan ingurumenaren, natura-baliabideen antolamenduaren eta naturaren kontserbazioaren arloko eskumenak esleituta dituen Saileko ordezkaria.
- Parkearen kudeaketaz arduratzen diren foru-organotako bi ordezkari.
- Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrien ordezkari bat.
- Arabako Lurralde Historikoko udalerrien ordezkari bat.
- Udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundearen ordezkari bat.
- Patronatuan parte hartzen duten gainerako erakundearen bi ordezkari.
- Parkeko zuzendaria.
- Patronatuko idazkaria”.

AZKEN XEDAPENEN ARTEAN HIRUGARRENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da indarrean.

XXXXXaren XX(e)ko XX/ 2018 DEKRETUAREN I. ERANSKINA

KARTOGRAFIA

Mapa arautzaileak (EHAAko bisorea zabaltzeko estekak):

- Mugapena
- Zonakatzea
- Babes-eremu periferikoa

Informazio-mapak (GeoEuskadi bisorea zabaltzeko estekak)

- Habitaten mapa, EUNIS sailkapen-sisteman
- Batasunaren Intereseko Habitaten mapa

XXXXXaren XX(e)ko XX/ 2018 DEKRETUAREN II. ERANSKINA

Gorbeia Naturagune Babestuko Natura Baliabideen Antolamendurako Planaren MEMORIA

XXXXXaren XX(e)ko XX/ 2018 DEKRETUAREN III. ERANSKINA

Gorbeia Naturagune Babestuko Natura Baliabideen Antolamendurako Planaren ARAUDIA